



Energia eta telekomunikazio sareen mantentze egokia zaindu beharrean irabaziak lehenestea egotzi diete erabiltzaileek sortutako kooperatibek multinazionaleri.

Kepa Ugarte Martiarena

Energia eta telekomunikazioak oinarritzko baliabideak izan arren, batez ere multinazionalen esku dago oraindik ere horien ustiake-ta, eta apirilaren 28ko itzalaldiak argi utzi zuen zer-nolako mendekotasuna dagoen enpresa haiekin: Hego Euskal Herri osoa argindarrrik gabe eta inkomunikatuta egon zen aldi batez eta eskualde gehienak hainbat orduz, administrazio publikoek eta hornitzaileek ez baitzekiten nola bideratu egoera. Aitzitik, gertaera horrek berriz pizarazi du hainbat eragilek abiatutako energia eta telekomunikazio burujabeen inguruko eztabaida.

Helburu horrekin plazaratu zuten Goiener eta Izarkom kooperatibek *Itzali sistema, piztu alternatibak* manifestu kolektiboa, maiatzean. Ordutik hona, eragileek eta norbanakoek aukera izan dute manifestuarekin bat egiteko, testuaren izen bereko webgunean, eta asmoa daukate udaren ostean bilera bat egiteko.

Hain zuzen, beharrezkotzat jotzen dute agerian uztea azpiegitura kritikoak noren esku dauden eta nola funtzionatzen duten; horrekin batera, irizten diote eztabaida ireki beharra dagoela. Haien ustez, «baliabideak kolektibizatzea» da aukera bakarra «boterea gutxi batzuen esku ez geratzeko, eta erabilera arduratsua bultzatzeko».

Itzalaldiaren egunean Aramaion (Araba) gertatutakoa gogoan dauka Maria Arretxe Goiener energia kooperatibako koordinatzaile orokorrak: «Bertan daukaten banaketa sarea udalarena da, eta, elektrizitate sorgailu baten bitartez, hogeitun minuturen buruan lortu zuten argia berreskuratzea». Hark azaldu duenez, «beti» izan dute argi helburu nagusia: «Energia sortzeko azpiegiturak hura kontsumitzen dugun lekutatik ahalik eta hurbilen egotea, eta autokontsumoa bultzatzea».

Hala ere, Arretxek ziurtatu du Aramaioko kasua salbuespena baino ez dela.

Zentral hidroelektriko txiki baten eta eguzki panelen zenbait instalazioen jabe da Goiener, eta berea du Oñatiko (Gipuzkoa) ur jauziko enpresa publiko-pribatuaren partaidetzaren %10 ere. Izan ere, energia merkaturatzeaz gain, hura sortzeaz arduratzen da. Baina banatzen duen energia guztia ekoiztetik «oso urrun» dago: «Hala ere, edonork kudeatu dezake hornidura elektrikoa gurekin, modu kooperatiboan». Ditutzen azpiegiturak ere bazkideen ekarpeni esker erosi dituzte.

Multinazionalen menpe

Energia azpiegiturei dagokienez, gaur egun, Hego Euskal Herrian, Red Electricak kudeatzen ditu goi tentsioko sareak, eta argindar konpainiek behe tentsiokoak: «Gehienetan, Iberdrolari dagokio azpiegiturak mantentzea eta horiek ondo egon daitezela bermatzea. Guk ez daukagu inolako ahalmenik azpiegitura horietan eskua sartzeko».

Hori dela eta, itzalaldiaren egunean arreta eman zieten bazkideei, baina ezin izan zuten hori baino askoz gehiago egin. Hala ere, Arretxek nabarmendu du «ahalik eta zerbitzurik one-

na» ematen ahalegintzen direla, «inongo trikimailurik gabe».

Ipar Euskal Herrian itzalaldiak ez zuen eraginik izan, Frantziako Gobernuaren menpe dauden edo herrialde horretan jarduten duten enpresek kudeatzen baitute elektrizitate sarea. Hala ere, I-Ener eta Enargia kooperatibek ondo dakite sareak egoki ez kudeatzeak zer eragin dezakeen: «Energiaren %90» multinazionalen menpe dago, Iban Lizarraldekin ohartarazi duenez: «Gure helburua da mendekotasun txikiagoa izatea argindar konpainiekin, eta beroa eta argindarra inguruko baliabideekin sortzea. Hala ere, asko dugu egiteko oraindik».

Hura da Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan energia burujabetzaren inguruan lanean diharduten eragile bi horien sortzaileetako bat. Energia sortzeko, eguzki panelak jartzen dituzte eraikinetako teilatuetan, eta berokuntzaren arloan hasi dira due-la gutxi, egurraren bidez. Proiektu horretan, elkarlanean ari dira baso ustiake-taz arduratzen den Sugarai kooperatibarekin.

Lizarraldekin azaldu duenez, «gure helburua da energiaren zirkuitu laburra sortzea, tokian-tokian ditugun baliabideekin proiektuak garatuz eta beroa eta argindarra sortuz». Alde ho-



«Iberdrolari dagokio azpiegiturak ondo egon daitezela bermatzea. Guk ez daukagu eskua sartzerik»

MARIA ARRETXE

Goieneko kooperatibako koordinatzailea

«Garrantzitsua da enpleguaren arloan ere burujabetza sustatzea, gure gazteak herrian gera daitezen»

IBAN LIZARRALDE

I-Ener eta Enargia kooperatiben sortzailea

«Guztiz normaltzat hartzen dugu telekomunikazio sareak enpresa pribatuen esku egotea»

IKER GARAIALDE

Izarkom kooperatibako zuzendaria

rretatik, Enargiako presidentek azpimarratu du bederatzia lanpostu sortu dituztela: «Garrantzitsua da enpleguaren arloan ere burujabetza sustatzea, gure gazteak herrian gera daitezen nahi baitugu», aipatu duenez.

Bestalde, Lizarralde garrantzitsutzat jo du horrelako kooperatibek bazkideei eskaintzen dieten «gertutasuna», eta Arretxe Goieneko koordinatzailea bat etorri da harekin. I-Enerrek eta Enargiak Donibane Garazin eta Baionan dituzte bulegoak, eta bazkide bakoitzaren «beharrak ulertzen» ahalegintzen dira han.

Eskaintzen dituzten salneurriak «oso lehiakorrak» dira: beste konpainia batzuk prezio merkeagoak eskaini arren, «askotan bezeroak berreskuratzeko kanpainak baino ez dira horiek», Lizarralde ohartarazi duenez. Hego Euskal Herrian ere, badaude Goienerekin eskaintzen dituenak baino tarifa merkeagoak, «alde handirik ez egon arren». Hala ere, I-Enerrek eta Enargiak bezalaxe, «energia erabat berriztagarria eta zuzeneko arreta» ematen dute horren truke, Arretxek azaldu duenez.

Informazioaren autobideak

Argindarrak gabe ez ezik, telefono deiak egin eta Interneten nabigatu ezin ere geratu ziren Hego Euskal Herriko biztanleak apirilaren 28ko itzalaldiaren ondorioz. Hain zuzen, Iker Garaialde Izarkom telekomunikazio kooperatibako zuzendariak sareen jabe diren enpresei aurpegiatu die «mantentze lanak eta hobekuntzak behar bezala ez egitea». «Azken finean, ahalik eta diru gutxien inbertitzen saiatzen dira, ahalik eta etekin handienak ateratzeko», laburbildu duenez.

Telekomunikazio sareak erre-



TELEKOMUNIKAZIOAK. Hainbat gazte gailu digitalak eskuan. BERRIA

pideekin parekatzen ditu Izarkomeko arduradunak: «Inori ez zaio burutik pasatzen herri bateko errepide guztiek pribatuak izan beharko luketenik, eta jabe bakoitzak horiek erabiltzeko baldintzak zehaztu beharko lituzkeenik». Aitzitik, informazioaren autobideen arloan «guztiz normaltzat hartzen dugu enpresa pribatuen esku egotea», Garaialdek txarretsi duenez.

Nazio Batuen Erakundeak Internet oinarritzko eskubide gisa identifikatu zuela gogorarazi du Izarkomeko zuzendariak, eta, hala, konpainia pribatuen jarduna arbuiatu du. Izan ere, nabarmendu duenez, oinarritzko zerbitzu gero eta gehiago ematen dira sarean, hala nola osasun arlokoak, hezkuntzakoak eta informazio trukeari dagozkionak.

Hala ere, Garaialdek ohartarazi du azpiegitura horiek soilik administrazio publikoen eskutan uz-

teak ere baduela «arriskua», eta gogora ekarri du zer gertatu zen Euskaltelekin: «Zuntz sare osoa pribatizatu zuten». Haren ustez, sareen jabetzak «publiko-komunitarioa» izan behar du, hau da, «gizartearen partaidetza ere beharrezkoa da».

Bide horretan, Izarkomeko arduradunak hizpidera ekarri du duela hiru urte abian jarri zuten EH Kom egitasmoa: Euskal Herrian dagoen arrakala digitala gaintzeko helburuarekin, telekomunikazio operadore hori sortu zuten Udalbiltzarekin eta Hiritik At kooperatibarekin elkarlanean, Internetarako konexioa udalerrietako biztanle guztien eskura jartzeko.

Egitasmoak modu horretan egituratzeak modua emango luke Europatik datozen «oztopoak» saihesteko: «inbertsio publikoa baliagarria izan daiteke prezioak merkatzeko, besteak beste. Hala

ere, ahalegin horiek lehia desleialtzat jotzen dituzte». «Proiektu kolektiboak» egitea litzateke hori saihesteko modua.

Enpresen gehiegikeria

Maidar Likona Bikonet kooperatibako kideak ere errepideekin parekatzen ditu telekomunikazio sareak, eta, nola funtzionatu beharko luketen azaltzeko, trafiko arauak ekarri ditu gogora: «Errepidean goazela, badaude gidari guztiok errespetatu beharreko arau batzuk; eta horiek betetzen ditugun heinean, trafikoa aurrera doa. Egin dezagun gauza bera telekomunikazioekin».

Hala ere, ez dirudi enpresa handiak arau horiek errespetatzeko prest daudenik, «ohituta baitaude gainontzeko beren esana betetzera». Besteak beste, zuntzari dagokionez, menpekotasun «izugarria» dago Movistar, Euskaltel, Orange eta Vodafone konpainiekin, Likonaren ustez.

Bikoneteko kideak azaldutakoaren arabera, «askotan gertatu izan da udal batek zuntz optikoa jartzea erabaki, konturatu orduko enpresaren bat sarea jartzen hasi, eta proiektua pikutara botatzea». «Izan ere, azkarrago eta merkeago egiten dute, bezeroak bereganatzeko».

Konpainia handi horiek hizpide hartuta, Bikonetekoak aipatu du bezeroei arreta ematen dieten langileek «lan baldintza kaskarrak» izaten dituztela: «Inolako trebakuntzarik gabe eta 800 euro ziztrinen truke jartzen dituzte telefono deiak erantzuten». Horrek «eragin izugarria» dauka bezeroei ematen zaien arretan: «Zalantzaren bat galdetzen badiezu, askotan ez dakite zer erantzun, ez baitiete formakuntzarik eman. Enpresarena da errua». ●

Eguzki panelak jarriko dituzte Senpereko zabortegian

● Orain arte, I-Ener kooperatibak teiltuetan baino ez ditu jarri argindarra sortzeko azpiegiturak: aurten, ordea, hiru futbol zelaien pareko eremu bat beteko du eguzki panelez, Senpereko Zalua-ga zabortegian (Lapurdi): 2,5 megawatteko potentzia izango du instalazio horrek, eta bi milioi euro baino gehiago inbertituko dituzte proiektuan. Iban Lizarralde I-Enerreko kideak zehaztu duenez, «laborantzarik ezin daiteke egin han, ezta eraikuntzarik ere». Laster abiatuko dute dirua biltzeko kanpaina.

ERROTA
HORTZ KLINIKA

ZURE AHO OSASUNAREN ZAINZAILEAK

Julian Apraiz, 1
01012 GASTEIZ
Tel.: 945 21 33 90
errotadental@euskalnet.net

Amets
Taberna

EGUERDITIK AURRERA ZABALIKI!

Urazurrutia Kalea 2, BILBO 48003 EUSKAL HERRIA • Tel.: 94-479 00 27

TRADEBI
TRANSLATION

Itzultzaileak

tradebi@tradebi.com